

ZER DA KOMIKIA?

CHUSE 2020

Komikia **marrazkiz eta hitzez osatzen den istorioa** edo kontakizuna da.

Istorioa **eszenetan banatzen da**, eszena bakoitza **marko baten barruan** marraztuta.

KOMIKIEN ELEMENTUAK:

Binetak: Istoriaren **eszenak**, marko edo **lerro batez inguratuta**.



Bunbuiloa edo bokadiloa: Pertsonaiak hitz egiten edo pentsatzen duena biltzen duen hodei iturako **ikurrak**

Onomatopeiak: zaratak adierazteko erabiltzen diren **hitzak**.

DANBA!

Ideogramak: Pertsonaien **buruaren inguruan** marrazten diren **lerroak**, normalean beraien **sentimenduak adierazteko**.

Mugimendu lerroak: Pertsonaiaren **mugimenduak adierazteko** marrazten diren **lerroak**.

Azpidatzia: Narratzaileak kontatzen duena jasotzen duen laukia.

BAT-BATEAN...



Lotu marra baten bidez komikiaren elementu bakoitza bere izenarekin



ONOMATOPEIA

**MUGIMENDU
LERRROAK**

**HIZKETA
BUNBUILOA**

BINETA

AZPIDATZIA

**PENTSAMENDU
BUNBUILOA**

IDEOGRAMA

DANBA!



BAT-BATEAN...

Irakurri ondo komikigintzan erabiltzen diren elementuak eta esaldiak osatu:

Pertsonai baten sentimenduak adierazteko, _____ lerro batzuk marrazten zaizkio. Lerro horiei _____ deitzen zaie.

Komikiaren eszena bat inguratzen duen markoari _____ deitzen diogu.

Pertsonai baten mugimendua adierazteko, _____ erabiltzen dira.

Pertsonaiek hitz egiten edo pentsatzen dutena _____ idatzen da.

Onomatopeiak _____ erabiltzen diren hitzak dira.

Azpidatzietan _____ idatzen da.

Ezagutzen al dituzu pertsonai hauek? Nola deitzen dira?

Tintin

Milu

Haddock kapitaina

Asterix

Obelix

Ideafix

